

Houstonetik Nafarroa Arenara



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Beyoncé futbol amerikarreko partida baten atsedendian, Houstonen (Texas). Kantari estatubatuarra *cowboy* jantzirik atera da estadio erdira. Kapela hegaluzeak tapatzen dio burua, zangoak belaunetarainoko bota luzeek. Soineko zuri urriak, berriz, izterrak eta paparra agerian uzten dizkio, eta gorputzaren gainerako bihurtuneak nabarmentzen. Sentsualitatea dario haren irudiari, haren ahotsari, haren mugimenduei. Gainera, ez dago bakarrik. Harekin batera, figurante tropa dabil koreografian, kantaria bezalatsu desgisaturik. Ehun baino gehiago dira, berrehun agian, neska eta mutil, beltzaranak nagusi, zein baino zein kaxarroago, zein baino zein iradokigarriago haien jarrerak, haien keinuak, haien kulunkak. Kirol emanaldiaren ikusleek kontent dirudite hainbertze metro koardro larruazalen bistara.

Beyoncérena, noski, ez da salbuespena, araua baizik. Emakume nahiz gizon, pop musikaren adar ugarien gaur egungo ikono gehienek ikuskizunak ageriko erotismoa dute ohiko osagarri. Areago, aparrean dabilzan estiloek areagotu baizik ez dute egin aspalditik heldu den

Beyoncé Super Bowlen inguratu zuten apolo eta venus beltzak ez bezala, sexuz eta sexualitatez gabetuak ziren Mitoaroko maskaratu androgino goitik beheiti tapatuak

joera. Gizonezko heteroek gobernaturako merkatu bateko markatzen jo izan da musika jantzi beharrez musikariak erantzi behar hori. Noski, emazteki artista ahaldunduen etorrerarekin apalduko zen delako hipersexualizazioa. Halakoak etorri, ordea, eta deus aldatu ez. Horra *ratchet* estetika, fenomeno honen azken erakusgarria.

Euskal musika ez da uhin horretara igan. Joan den hamarkadaz geroztik eza gutzen ari den irekiera estilistiko nabarmenak ez du berekin ekarri gaur egungo

nazioarteko musikak hain berea duen ezaugarri hori. Agerikoa egin zitzaidan lehengo egunean, telebistan *Mitoaroa* ikustean.

Alde aunitzetatik aipatu eta gorai-patu dira egun hauetan Zetak-ek Nafarroa Arenan eskaini dituen bi kontzertu arrakastatsuak. Hainbertze ertz erakutsi zituzten bi emanaldiek -alderdi sozilinguistikoak eta musikaz kanpokoak barne- ia-ia oharkabean joan baitzitzai-gun kontu bat, beharbada hutsala, baina adierazgarria. Momotxorro, zipotero joaldun, txatxo... inauterietako pertsonaien agerpenak euskal mitologiari gorazarre egin eta ikuskizunaren alderdi bisuala indartu ez ezik, sexualizazioaren arriskuari ihes egiteko bidea gertatu zen Pello Reparazen eskuetan. Beyoncé Super Bowlen inguratu zuten apolo eta venus beltzak ez bezala, sexuz eta sexualitatez gabetuak ziren *Mitoaroko* maskaratu androgino goitik beheiti tapatuak. Bitxiki, arbizuarrak akelarrerako eta deskontrolerako deia egiten zuen bere kantetan, edo amodio gau ahantzezinak gogora ekartzen. Ez dut uste han bildutako milaka jenderen artean inork kontraesanik ikusi zuenik. ●

Nobedadea

Haziak

Zergatik eta nola egin zureak

Miguel Arribas *Kelo* eta Marc Badalen liburu honek azalpen zehatzak ematen ditu gure baratzeetako 60 espezieren haziak egiteko. 211 argazkirekin osatua.

ARGIA BIZI BARATZEA

26€



azoka.argia.eus (+34) 943 17 35 45